*Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak*

## OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**6611**

**625/2011 ERABAKIA, azaroaren 15eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, behin betiko onartzen da Kuartangoko udalerriko Ondasun Higiezinen gaineko Zergari lotutako lurzoruaren eta hiri ondasun higiezinen (eraikinak) balioespen txostenaren eranskina. Eranskin horretan "Badaiako" parke eolikoa, aipatutako udalerrian dagoen aldea, balioesteko irizpideak ere jasotzen dira.**

Irailaren 29ko 556/2011 Foru Aginduaren bidez, behin-behinean onartu zen Kuartangoko udalerriko Ondasun Higiezinen gaineko Zergari lotutako lurzoruaren eta hiri ondasun higiezin (eraikinak) berezien balioespen txostenaren eranskina. Eranskin horretan "Badaiako" parke eolikoa -aipatutako udalerrian dagoen aldea- balioesteko irizpideak ere jasotzen dira.

Aipatutako lege araudiaren xedatze zatiko 2. artikuluan, Kuartangoko Udalari haren berri emateko agindua eman zen. Agindu hori 2011ko urriaren 3an bete zen, eta Kuartangoko Udalak 2011ko urriaren 7an jaso zuen jakinarazpena.

Uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen duenak, 11. artikuluko 4. paragrafoaren bidez, udalari hamabost egun ematen dizkio egoki deritzona adieraz dezan.

Epe hori igarota, Kuartangoko Udalak ez du inolako desadostasunik adierazi hartutako erabakiarekin.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren proposamenez, Diputatuen Kontseiluak gaia gaur bertan egindako bilkuran aztertu eta gero, hau

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Behin betiko onartzea Kuartangoko udalerriko Ondasun Higiezinen gaineko Zergari lotutako lurzoruaren eta hiri ondasun higiezin (eraikinak) berezien balioespen txostenaren eranskina. Eranskin horretan "Badaiako" parke eolikoa -aipatutako udalerrian dagoen aldea- balioesteko irizpideak ere jasotzen dira.

Bigarrena.- Erabaki hau ALHAOn argitaratuko da, eta Kuartangoko Udalari dagokio haren berri ematea, ediktuak jarrita, halaxe xedatzen baitute Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, 11. artikuluaren 6. paragrafoan, eta haren arautegi bidezko garapenak -abenduaren 15eko Diputatuen Kontseiluaren 1080/1992 Foru Dekretuak onarturikoak-, 15. artikuluan.

Hirugarrena.- Balioespen txostenaren aldaketa argitaratzen denetik aurrera, banan-banan jakinarazi behar zaizkio subjektu pasibo bakoitzari aldaketaren ondorioz sortutako katastro balioak urtea bukatu baino lehen; hain zuzen ere, balio horiek eragina izaten hasi behar duten urtearen aurrekoa bukatu baino lehen, abenduaren 15eko Diputatuen Kontseiluaren 1080/1992 Foru Dekretuak –Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Araua arautegi bidez arautzen duenak- 17. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 15a.– Diputatu nagusia, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JOSÉ ZURITA LAGUNA.– Ogasun zuzendaria, JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO.

### "BADAIAKO" PARKE EOLIKOAREN BALIOESPEN TXOSTENA, KUARTANGOKO UDALERRIAN

Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak bere 3. artikuluko 4. paragrafoan xedatzen

*Acuerdos del Consejo de Diputados*

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**6611**

**ACUERDO 625/2011, del Consejo de Diputados de 15 de noviembre, que aprueba definitivamente el anexo de la Ponencia de Valoración del suelo y construcciones de los bienes inmuebles de características especiales sujetos al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Kuartango, incluyendo en la misma los criterios valorativos del Parque Eólico de "Badaia", en la parte situada en el citado término municipal.**

Por Orden Foral nº 556/2011, de 29 de septiembre, se aprobó con carácter provisional, el Anexo de la Ponencia de Valoración de Suelo y Construcciones de los bienes inmuebles de características especiales sujetos al Impuesto sobre Bienes Inmuebles del término municipal de Kuartango, incluyendo en la misma los criterios valorativos del Parque Eólico de "Badaia" en la parte situada en el citado término municipal.

En el artículo 2º de la parte dispositiva de la referida normativa legal, se ordenaba su comunicación al Ayuntamiento de Kuartango, disposición que se realizó con fecha 3 de octubre de 2011, siendo recepcionada por el Ayuntamiento de Kuartango, con fecha 7 de octubre de 2011.

La Norma Foral nº 42/1989, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, dispone en su artículo 11 apartado 4º, el plazo de audiencia al Ayuntamiento respectivo, cifrándolo en quince días, para que informe lo que estime oportuno.

Habiendo transcurrido el plazo indicado el Ayuntamiento de Kuartango no ha manifestado disconformidad alguna con la resolución adoptada.

En su virtud, a propuesta del Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, previa deliberación del Consejo de Diputados, en sesión celebrada por el mismo, en el día de hoy

ACUERDO

Primero.- Aprobar definitivamente el Anexo de la Ponencia de Valoración del suelo y construcciones de los bienes inmuebles de características especiales sujetos al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Kuartango, incluyendo en la misma los criterios valorativos del Parque Eólico de "Badaia", en la parte situada en el citado término municipal.

Segundo.- El presente Acuerdo será publicado en el BOTHA, correspondiendo al Ayuntamiento de Kuartango dar la debida publicidad al mismo, mediante la publicación de los correspondientes edictos, tal y como establecen por un lado el artículo 11 apartado 6º de la Norma Foral nº 42/1989, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, como su posterior desarrollo reglamentario Decreto Foral nº 1080/1992, del Consejo de Diputados de 15 de diciembre, en su artículo 15.

Tercero.- A partir de la publicación de la modificación de la Ponencia de Valoración, los valores catastrales resultantes deberán ser notificados individualmente a cada sujeto pasivo antes de la finalización del año inmediatamente anterior a aquel en que deban surtir efecto los mismos, de conformidad con lo establecido en el Decreto Foral nº 1080/1992, del Consejo de Diputados de 15 de diciembre en su artículo 17 y que sirve de desarrollo reglamentario a la Norma Foral nº 42/1989, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de noviembre de 2011.– Diputado General, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ ZURITA LAGUNA.– Director de Hacienda, JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO.

### PONENCIA DE VALORES DEL PARQUE EÓLICO DE "BADAIA", EN EL TÉRMINO MUNICIPAL DE KUARTANGO

La Norma Foral 42/1989, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, en su artículo 3º, apartado 4º) dispone que

duenez, ondasun higiezin bereziak dira energia elektrikoa ekoizten duten ondasun higiezinak, esate baterako parke eolikoak.

55/2011 Foru Dekretuak, irailaren 13ko Diputatuen Kontseiluarenak, ezaugarri bereziak dituzten ondasun higiezinen katastro balioespenerako arauak onartu zituen. Dekretu horrek bere 2. artikuluan xedatzen du mota horretako ondasun higiezinen katastro balioa lurzoruaren balioaren eta eraikuntzen balioaren batuketatik ateratakoa dela. Era berean, lege xedapen beraren 3. eta 4. artikuluetan, xedatzen da mota horretako ondasun higiezin berezien lurzorua eta eraikuntzak balioesteko irizpideak dagozkien balioespen txostenetan finkatuta egongo direla.

Balioespen txosten hau egiteak ondoko hau du helburu: bere barruan “Badaiako” parke eolikoko ondasun higiezinen balioespen berezia jasotzea, parke horrek Arabako Lurralde Historikoan eragina baitu; hain zuzen ere, Kuartangoko eta Iruña Okako udalerrietan. .Balioespen txosten honetako 500 zk.ko poligono fiskala esleituko da. Txosten horrek aipatu parke osoa osatzen duten eraikuntzetako bakoitzaren balioa jasoko du.

Kuartangoko udalerriko hiri lurzorutik edo lurzoru barreiatutik kanpo dauden gainerako eraikuntzetarako bezalaxe kalkulatuko da lurzoruaren katastro balioa, irailaren 9ko Diputatuen Kontseiluaren 672/2004 Erabakiaren bidez onarturiko balioespen txostenean, hau da, hiri ondasun higiezinen lurzoruaren eta eraikuntzen balioespen txostenean xedatutakoa oinarri hartuz. Eraikuntzek eta bide eta urbanizazio lanek okupatutako azalera soilik hartuko du barnean lotutako lurzoruak. Ez da halakotzat joko parkearen eragin eremua, aplikatu beharreko arautegiak ohiko nekazaritza erabilerarekin jarraitzea baimentzen baitu.

Poligono fiskal honetako eraikuntzei esleitutako balioa era berezian kalkulatuko da, irailaren 13ko Diputatuen Kontseiluaren 55/2011 Foru Dekretuak bere 4. artikuluko 5) paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriz. Izan ere, eraikuntza bereziak dira, ezin baitaitezke identifikatu urtarrilaren 18ko 2/1994 Foru Dekretuan (hiri ondasun higiezinak balioesteko arau teknikoak eta lurzoruaren eta eraikuntzen balioen taula markoa onartu zituen) definitutako inolako eraikuntza tipologiarekin.

Balioespen espezifikoa, “Badaia” parke eolikoaren kasuan, higiezin merkatutik kanpoko datuetan oinarritu beharko da, hau da, beste prozedura batzuetatik lortutako datuetan, higiezin merkatu horretara heltzen ez diren ondasun higiezinak direlako. Ondoko hauetatik lortu dira ondasun higiezin berezi horien katastro balioa kalkulatzeko erabilitako datuak: Kuartangoko Udalean eskuratutako eta kontsultatutako eta Eólicas de Euskadi SA enpresak han aurkeztutako obrak gauzatzeko proiektuetatik, eta dagokien obra amaierako ziurtapenetatik.

**“BADAIAKO” PARKE EOLIKOAREN KATASTRO BALIOESPEN ESPEZIFIKOA, KUARTANGOKO UDALERRIARI DAGOKIONA**

Badaiako parke eolikoa, orotara, 30 aerosorgailuk osatzen dute, eta horietako bakoitzak 1.666 Kw-ko potentzia du. Arabako Lurralde Historikoan instalatuta daude; hain zuzen ere, Iruña Okako, Kuartangoko eta Erriberagoitiko lurretan.

Badaiako parke eolikoa osatzen duten 30 aerosorgailuetatik 26 Kuartangoko udalerrian daude. Txosten honen ondorioetarako, 26 aerosorgailuez gain Kuartangoko udalerrian egindako instalazio eta obra zibil guztiak joko dira eraikuntza osoaren katastro balioespeneko unitatetzat -zeinak Kuartangoko Udalari eragiten baitio-, honako hauek guztiak jota eraikuntzatzat: makina, aparatu edo tresna kontzeptuarekin ez baizik eta ondasun higiezin edo eraikin kontzeptuarekin parekatu daitezkeen merkataritza edo industria instalazio eta obrak.

los bienes inmuebles destinados a la producción de energía eléctrica como los parques eólicos, son bienes inmuebles de características especiales.

El Decreto Foral 55/2011, del Consejo de Diputados de 13 de septiembre, que aprueba las Normas de valoración catastral de los bienes inmuebles de características especiales, dispone en su artículo 2º que el valor catastral de esta tipología de bienes inmuebles está constituido por la suma del valor del suelo y el valor de las construcciones. Asimismo los artículos 3º y 4º de la misma disposición legal regulan que los criterios de valoración del suelo y de las construcciones de este tipo especial de bienes inmuebles estarán establecidos en las correspondientes Ponencias de Valoración.

Esta Ponencia de Valoración se realiza al objeto de incluir en la misma la valoración singular del Parque Eólico de “Badaia”, afectando dentro del Territorio Histórico de Álava a los términos municipales de Kuartango e Iruña de Oca. Se asignará el Polígono Fiscal nº 500 de ésta Ponencia de Valoración, que contendrán el valor de cada una de construcciones que componen la totalidad del citado Parque.

El valor catastral del suelo se calculará exactamente igual que para el resto de construcciones situadas fuera del suelo urbano o diseminado del término municipal de Kuartango, en base a lo dispuesto en la Ponencia de Valoración de Suelo y Construcciones de bienes inmuebles urbanos aprobada por Acuerdo nº 672/2004 del Consejo de Diputados del 9 de septiembre. El suelo sujeto comprenderá exclusivamente la superficie ocupada por las construcciones y las obras de caminos y de urbanización, no considerándose como tal la zona de influencia del Parque al permitir la normativa de aplicación el mantenimiento del uso agrario habitual.

El valor asignado a las construcciones en este Polígono Fiscal se calculará de manera singularizada, de conformidad a lo dispuesto en el artículo 4, apartado 5) del Decreto Foral nº 55/2011, del Consejo de Diputados de 13 de septiembre, ya que se trata de construcciones singulares que no pueden identificarse con ninguna de las tipologías constructivas definidas en el Decreto Foral nº 2/1994, de 18 de enero, por el que se aprueban las Normas Técnicas de Valoración y el Cuadro Marco de valores de suelo y construcciones de los bienes inmuebles de naturaleza urbana.

La valoración especifica en el caso del Parque de “Badaia”, deberá basarse en datos ajenos al mercado inmobiliario, es decir en datos obtenidos por otros procedimientos, debido a que se trata de bienes inmuebles que no acceden a dicho mercado inmobiliario. Los datos a partir de los cuales se obtiene el valor catastral de los referenciados bienes inmuebles de características especiales, provienen de los Proyectos de ejecución de obras y de sus correspondientes Certificaciones finales de obra facilitados y consultados en el Ayuntamiento de Kuartango y presentados, en el mismo, por la empresa Eólicas de Euskadi, S.A.

**VALORACIÓN CATASTRAL ESPECÍFICA DEL PARQUE EÓLICO DE “BADAIA”, CORRESPONDIENTE AL TÉRMINO MUNICIPAL DE KUARTANGO**

El Parque Eólico de Badaia se compone en total de 30 aerogeneradores, disponiendo cada uno de ellos de una potencia de 1.666 Kw., estando instalados en la jurisdicción del Territorio Histórico de Álava, y dentro de Álava, en terrenos de los términos municipales de Iruña de Oca, Kuartango y Ribera Alta.

De los 30 aerogeneradores que componen dicho parque eólico de Badaia, 26 de ellos están situados en el término municipal de Kuartango, y considerando a los efectos de la presente Ponencia, como unidad de valoración catastral de construcción total y que afecta al Ayuntamiento de Kuartango, los 26 aerogeneradores con todas las instalaciones y obra civil realizadas en dicho Ayuntamiento, considerándose como construcción todas las obras e instalaciones comerciales o industriales que sean asimilables al concepto de bien inmueble o edificio y no al de máquinas, aparatos o artefactos.

### BADAIAKO PARKE EOLIKOAREN BALIOESPENA, KUARTANGON

| KAPITULUA | DESKRIBAPENA | ZENBATEKOA |
|---|---|---|
| 1.- Obra zibila | -Sarbideak eta plataformak (guztiaren ehuneko 100) | 813.558,42 euroak |
| | -Dorreen zimenduak (guztiaren ehuneko 100) | 1.064.842,39 euroak |
| | OBRA ZIBILA, GUZTIRA | 1.878.400,81 euroak |
| 2.- Instalazioak | -Erdi tentsioko kanalizazioa (guztiaren ehuneko 100) | 719.174,17 euroak |
| | INSTALAZIOAK, GUZTIRA | 719.174,17 euroak |
| 3.- Aerosorgailuak | -26 aerosorgailu (guztiaren ehuneko 25) | 7.505.723,33 euroak |
| | AEROSORGAILUAK, GUZTIRA | 7.505.723,33 euroak |
| **KUARTANGOKO 26 AEROSORGAILUEN GUZTIZKOA** | | **10.103.298,31 euroak** |

Merkatuarekiko erreferentziazko 0,70 zuzentze koefizientea aplikatuko zaio Kuartangoko udalerrian eragina duen eraikuntza kostu osoari. Horrenbestez, ondokoa da eraikuntzaren katastro balio osoa, zeina ezin daitekeen murriztu inolako zuzentze koefizienterekin -hala nola antzinatasunekoa edo erabilerakoa-:

| POLIGONO FISKALA | PARKE EOLIKOA | ERAIKUNTZAREN KATASTRO BALIOA |
|---|---|---|
| 500 | Badaia | 7.072.308,82 euroak |

Kuartangoko udalerrian, Badaiako parke eolikoaren katastro balio osoa bi hauen batura izango da: hemen kalkulaturiko eraikuntzaren katastro balioa gehi lurzoruaren katastro balioa, balioespen txostenean oinarrituz kalkulatua.

### VALORACIÓN DEL PARQUE EÓLICO DE BADAIA, EN KUARTANGO

| CAPÍTULO | DESCRIPCIÓN | IMPORTE |
|---|---|---|
| 1.- Obra Civil | -Accesos y plataformas (100 por cien del total) | 813.558,42 euros |
| | -Cimentaciones de torres (100 por cien del total) | 1.064.842,39 euros |
| | TOTAL OBRA CIVIL | 1.878.400,81 euros |
| 2.- Instalaciones | -Canalización de Media T. (100 por cien del total) | 719.174,17 euros |
| | TOTAL INSTALACIONES | 719.174,17 euros |
| 3.- Aerogeneradores | -26 aerogeneradores (25 por ciento del total) | 7.505.723,33 euros |
| | TOTAL AEROGENERADORES | 7.505.723,33 euros |
| **TOTAL DE 26 AEROGENERADORES EN KUARTANGO** | | **10.103.298,31 euros** |

Al coste de construcción total que afecta al término municipal de Kuartango se le aplicará el coeficiente corrector 0,70 de referencia al mercado, con lo que el valor catastral total de construcción, el cual no podrá reducirse por ningún coeficiente corrector como es el de la antigüedad o el uso, es de:

| POLÍGONO FISCAL | PARQUE EÓLICO | VALOR CATASTRAL CONSTRUCCIÓN |
|---|---|---|
| 500 | Badaia | 7.072.308,82 euros |

El valor catastral total del Parque Eólico de Badaia, sito en el término municipal de Kuartango, será la suma del valor catastral de la construcción aquí calculado, más el valor catastral del suelo calculado en base a la Ponencia existente.

## Iragarkiak

### EKONOMIA SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA

**6602**

**Prozedura irekirako deia, agiriak, formularioak eta inprimakiak errendimendu handian inprimatzeko sistema zentralizatu oso bat kontratatzeko, alokairu eta mantenimendu zerbitzuen bidez. Sistema hori sailerako bi inprimagailuk, abiadura handikoak eta ingurumen inpaktu txikikoak, osatuko dute.**

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 37. artikuluan xedatutakoa betetzeko, jendaurrean jarriko dira, hamar egunez, prozedura irekia arautuko duten klausula ekonomiko-administratiboen agiriak.

1.- Erakunde esleitzailea

a) Erakundea: Arabako Foru Aldundia

b) Espedientea izapidetuko duen bulegoa: Zerbitzu Orokorren Idazkaritza Teknikoa

c) Espedientearen zenbakia: 64/12

2.- Kontratuaren xedea

a) Xedearen azalpena: Agiriak, formularioak eta inprimakiak errendimendu handian inprimatzeko sistema zentralizatu oso bat eskuratzea, alokairu eta mantenimendu zerbitzuen bidez. Sistema hori sailerako bi inprimagailuk, abiadura handikoak eta ingurumen inpaktu txikikoak, osatuko dute..

b) Gauzatzeko lekua: Gasteiz

c) Kontratuaren iraupena: Esleipena formalizatzen denetik 2016ko abendura izango da.

3.- Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era

a) Izapidetzea: arrunta

b) Prozedura: irekia, lizitatzaileen aldez aurreko onarpenik gabe

c) Esleitzeko era: hainbat irizpideren balioespena

4.- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua:

Zenbateko osoa: 254.700 euro (215.847,46 euro gehi BEZaren 38.852,54 euro).

5.- Bermeak

Behin-behinekoa: ez da eskatzen.

## Anuncios

### DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA Y ADMINISTRACIÓN FORAL

DIRECCIÓN DE SERVICIOS GENERALES

**6602**

**Convocatoria de procedimiento abierto para la contratación mediante alquiler-mantenimiento de una solución completa de impresión centralizada en alto rendimiento de documentos, formularios e impresos, integrada por dos impresoras departamentales de alta velocidad y bajo impacto medioambiental.**

Para dar cumplimiento al artículo 37 de la Ley de Contratos del Sector Público, se exponen al público, durante el plazo de diez días, los Pliegos de cláusulas económico-administrativas que han de regir el procedimiento abierto convocado al efecto.

1.- Entidad adjudicadora

a) Organismo: Diputación Foral de Álava

b) Dependencia que tramita el expediente: Secretaría Técnica de Servicios Generales

c) Número de expediente: 64/12

2.- Objeto del contrato

a) Descripción del objeto: Adquisición mediante alquiler-mantenimiento de una solución completa de impresión centralizada en alto rendimiento de documentos, formularios e impresos, integrada por dos impresoras departamentales de alta velocidad y bajo impacto medioambiental.

b) Lugar de ejecución: Vitoria-Gasteiz

c) Duración del contrato: Se extenderá desde la formalización de la adjudicación hasta el 31 de diciembre de 2016.

3.- Tramitación, procedimiento y forma de adjudicación

a) Tramitación: Ordinaria

b) Procedimiento: Abierto, sin admisión previa de licitadores

c) Forma: Valoración de varios criterios

4.- Presupuesto base de licitación:

Importe de 215.847,46 euros más 38.852,54 euros del IVA correspondiente, Importe total de 254.700 euros.

5.- Garantías

Provisional: No se exige